



Shakespeare 'reloaded'

Arantzazu Fernandez Iglesias

XV. mendeko Arrosen Gerrari buruzko Shakespeareren antzezlanak batu ditu Bieitok. Aitortu beharra daukat testu-antzerkia ikustera joaten naizenetan beldurrez iristen naitzela antzokira, antzezlana testu kanoniko, klasiko –eta are okerragoa dena– historikoa denean. Izan ere, oraindik obra askotan indarrean mantentzen dute muturreko sentimenduak adierazteko modu deklamatorio garrasizalea, eta hortik nire aurreiritzi ikarati hutsalak. Alta, *Erresuma*-ren tonua guztiz apala izan dugu. Hasierako eszenako lehenbiziko hizketalditik argi geratzen da zuzendaritzak espresio hanpurutsutik alde egin nahi izan duela. Sagardoik jorrazten du lehenbiziko ildo, Apaolazak jarraitzen dio, eta, era horretan, bortizkeria bisualarekin kontrastea sortzen duen ahotsen erabilera naturaltasunarekin lerratzen da. Ez zait inoiz ere ahaztuko hasiera hori, non eszenografiaren indarraren gaitetik euskal aktoreen hitza nagusitu den. Eta hortik antzezel talde guztiari zorionik beroenak, txaloaldi iraunkor luze-luze bat, zuen hitzek on egin digute.

Antzezlana Bieitoren estiloren ezaugarri bete-beteak ditu: eszenografia itzela eta gozatu ga-



KRITIKA Antzerkia 'Erresuma'

Testuak: William Shakespeare.

Bertsioa, zuzendaritza, eszenografia: Calixto Bieito.

Euskarazko bertsioa: Bernardo Atxaga. **Aktoreak:** Jose Maria Pou, Joseba Apaolaza, Lucia Astigarraga, Ylenia Baglietto, Ainhoa Etxebarria, Miren Gaztañaga, Iñaki Maruri, Koldo Olabarri, Lander Otaola, Eneko Sagardoi, Mixel Santamarina.

Zuzendari laguntzaileak: Maria Goirizelaia, Ane Pikaza.

Jantziak: Ingo Krugler, Paula Klein.

Argiak: Michael Bauer. **Ekoizle nagusia:** Bilboko Arriaga Antzokia.

Lekua: Bilboko Arriaga Antzokia.

Eguna: Otsailak 13.

beko ankerkeriaren errepresentazioa. Agertokiak kaxa zuri bat dirudi, argia kirurgikoz horniturikoa, baina fokuek aurrera egin ahala joko polita eskainiko digute, hasierako lautasun kromati-

koa apurtuz. Gainera, estetika minimalista hori geroxeago hautsi digute hondoko pareta teloi moduan altxatu diguten trantsizio bakoitzean. Orduan, argi horiko fokuen indarrak itsutu, eta atrezzo berriaz hornitu zaigu oholtza. Hasteko, aktoreak banan-banan hasi dira oholtzara-tzen eta mahairen bueltan eser-tzen. Pou jauna, errepresentazioan aktore nahiz pertsonaia bezala ohorezko tokia betetzen duenez, azkena sartu da, eta mahaiburuan kokatu zaigu.

Argumentua bukle bat bezalako da: ekitaldi guztietan erailketa krudel bat gauzatuko du boterea eskuratu nahi duenak. Horrela, *Erresuma* mespretxu, tortura eta hilketen segida da. Baina atentzioa ematen du Brexit garaietan Erresuma Batuaren marka ikonikoak (uniformeak, futbola, Elizabeth II.a, Mary Quant estiloa, Chesterra...) izatea estetikaren funtsa. Ez al da kontu unibertsala? Ez al da Shakespeare denona? Distantzia sortzeko mekanismoa da, ala pop kutsu bat gehitzeko estrategia dugu? Hausnarketa luzeak sortzen dizkit proposamenak, eta hori bai dela gauza ona. Shakespeare *reloaded* hau gure egunen isla ederra delakoan nago. *Erresuma*-k ziklo oso bat (Rikardo II.a, Henrike IV.a, V.a, VI.a eta Rikardo III.a) laburtzen digu hilketaz hilketa, testuetako edukiak titularretan mehetuta egongo balira bezala, eta Twitterren garaietako mezu argi bezain laburretarako apeta asetzen digula. Hori eztabaidatzeko *Egun finlandiar luze-luze bat* beharko genuke. Ez galdu, eta adiskideekin joan.